

ENYA GOMENDIOAK

Hitz egin dezagun gazte modura, hitz egin dezagun COVID-19ak haur eta nerabeen eskubideetan duen inpaktuaz.

2021ko IRAILA // Gazte Aholkularien Europako Sareak (ENYA, ingelesezko sigletan) egindako lanari buruzko txostena
Haurren Defentsa Erakundeen Europako Sarearen (ENOC) proiektua



HITZAURREA

COVID-19aren pandemiak mundu osoko haur eta nerabeei erasan die, modu batean edo bestean. Haurren Defentsa Erakundeen Europako Sareak (aurrerantzean ENOC) egindako lanaren parte gisa, ENYA 2021 proiektuan parte hartu zuten gazteek COVID-19aren neurriek haien eskubideetan izan duten inpaktuaren inguruan eztabaidatu zuten, estatu mailan zein Europa mailan.

Gazteek hainbat erronka identifikatu zituzten, eta gomendio ugari aurkeztu zituzten. Hala ere, gai bat bereziki nabarmendu zuten, hain zuzen ere gehienetan ez zitzaizela kontsultatzen pandemia kontrolatzeko neurriak aplikatzen zirenean, nahiz eta, Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Hitzarmenaren 12. artikulua arabera, haurrek eta nerabeeek baduten haien iritzia adierazteko eskubidea haien inguruko gai guztietan, eta iritzia kontuan hartu behar dira. Halaber, bermatu behar da gazteen talde horrek plazaratutako gomendioak paraleloan haurren defentsa erakundeek egiten dute lanean txertatzen direla.

Geuk, ENYako gazteek, erakunde guztiei eskatzen diegu (tartean Herritarren Defentsa Erakundeei eta estatu eta eskualdeetako haurrentzako goi komisarioei, gobernuei, Europar Batasunari, Europako Kontseiluari eta interesatutako gainerako alde guztiei) gomendio hauen jarraipena egin dezaten ziurtatzeko haurren eta nerabeen eskubideak bermatuta daudela, baita mundu mailako pandemia baten testuinguruan ere.

SARRERA

ENYA 2021 HELP WITH THE BAGGAGE



COVID-19ak erronka asko planteatutako dizkigu guztioi, baita haurrei eta nerabeei ere, bereziki egoera ahulean bizi direnei eta zerbitzuetara jo ezin dutenei. Haurrek parte hartze txikia izan dute eta dute, neurriren batean parte hartu dutenean, COVID-19ari buruzko erabaki eta politiken eztabaidetan; aldi berean, pandemiak gogor jo ditu edo jotzen ditu haurren bizitzen alderdi guztiak. Horregatik, ENYA 2021 proiektuaren helburua da Europa osoko gazteekin eztabaidak erraztea haien ideiak eta esperientziak aginte eskudunei jakinaraztea ziurtatzeko.

Aurten, ENYAk ekimen honetan parte hartu duten ENOCeko kideen kopururik handienetako bat izan du. COVID-19ak haur eta nerabeen eskubideetan duen inpaktuari buruzko eztabaidetan 17 herrialde/eskualdeetako gazteek hartu dute parte.

Parte hartu duten eskualde/herrialdeak: Albania / Andaluzia – Espainia / Euskadi – Espainia / Bulgaria / Katalunia – Espainia / Frantzia / Grezia / Islandia / Italia / Malta / Montenegro / Ipar Irlanda - Erresuma Batua / Norvegia / Eskozia - Erresuma Batua / Eslovakia / Ukraina / Gales - Erresuma Batua

ENYAren koordinatzaile nagusia Malta Haurtzaroko Komisarioaren Bulegoa izan zen, eta prozesu osoan orientazioa eta babesa eskaini zituen. Martxo eta ekaina artean ENYAko koordinatzaileek zenbait bilera eta jarduera antolatu eta bideratu zituzten estatu edo eskualde mailako gazteen taldeekin. Bilera gehienak on line egin ziren COVID-19aren egoera zela medio, baina eskualde edo herrialde batzuetan aurrez aurreko bilerak egin ahal izan zituzten.

Bilera horien helburu nagusia izan zen Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Hitzarmenean jasotako eskubideetatik kalte handiena zeinek pairatu zuten hobeto ulertzea. Lau gai nagusi bereziki nabarmendu ziren: hezkuntza, osasuna (osasun mentala zein fisikoa), haurren pobrezia eta indarkeria eta tratu txarrak. Pertsona parte hartzaileei gutxienez bi gai nagusitan aritzea eskatu zitzaien. Haientzat garrantzitsuak diren beste gai batzuk aztertzeraz ere animatu ziren. Eztabaiden ondoren, haur eta nerabeen ongizatea zaintzeko moduen inguruko zenbait gomendio idazteko eskatu zitzaien, baita COVID-19aren pandemia bezalako larrialdi egoeretan haur eta nerabeen eskubideak errespetatzeko moduei dagokienez ere.

ENYA FOROA



Bigarrenez (lehen 2020an izan zen), ENYA foroa online ospatu zen 2021eko uztailaren 1ean eta 2an. Foroa Malta Haurtzaroko Komisarioaren Bulegoak hartu zuen, ENYAren koordinatzaile nagusia den aldetik. Foroan 12 eta 18 urte arteko 33 gazte bildu ziren, 17 eskualde edo herrialdeetatik iritsitakoak. Gazteek koordinatzaileen babesa izan zuten, eta bi egun horietan zenbait saio antolatu zituzten. Horrez gain, ENOCeko Idazkaritzak, haurtzaroko komisario batzuek eta herritarren zenbait defentsa erakundek ere bat egin zuten ekitaldiarekin.

Eskualde edo herrialde bakoitzari eskatu zitzaien bere taldearen gomendioak ENYA foroa egin aurretik aurkezteko, hala, gomendioak bildu eta dokumentu bakarrean aurkeztu ahal izateko. Kontuan hartuz COVID-19ak haur eta nerabeengan izan duen kalte larria, gai nagusiei buruzko gomendio ugari jaso ziren, baita bestelako gai gehigarri hauei dagokienez ere: Parte hartzea, Jolasa eta Aisialdia, Familia, Informazioa eta Ingurune Digitala.

Foroa, halaber, plataforma gisa ere erabili zen aholkulariek elkar ezagutu eta ideiak eta esperientziak partekatzeko. Bi egunetan elkarrekintzako hainbat jarduera dibertigarri antolatu ziren, esaterako ihes jolas birtual bat, musika tailer bat edo bisita birtual bat Maltako Hipogeoan. Taldeetan banatu ziren gomendioak eztabaidatu eta bozkatzeko, Padlet softwarea erabiliz brainstorming edo ideien ekaitza egiteko.



GOMENDIOAK

HEZKUNTZA

1. On line ikaskuntza ezartzeko erabakia hartu aurretik, ziurtatu egin behar da haur guztiek badutela sarbidea Internetera eta parte hartzeko ekipamendu egokia dutela. Beharrezkoa denean, etxean ikasteko giro aproposa sortzeko materialak, gailuak eta zerbitzuak hornituko dira.

2. Behar duten haurrei laguntza eta babes berezia eman behar zaie. Izan daiteke ikasteko zailtasunak dituelako, etxean babes sistemarik ez dagoelako, haurrak harrera araubidean daudelako edo ikasketetan bestelako desabantailak dituztelako.

3. Online irakasgaiak grabatu egin beharko dira, eskola bat galdu duten ikasleek berriz ere ikusteko aukera izan dezaten.


4. Urrutiko irakaskuntzaren inguruan hezitzaileak prestatu behar dira. Prestakuntzak tresna teknologikoen funtzionamendua barne hartu behar du; haur eta nerabeei laguntza emozionala nola eman; ikasleekin nola eduki harreman eraginkorrak online.

5. Pandemiak agerian utzi dituen hezkuntza sistemaren hutsuneei buruzko eztabaida ireki beharko litzateke, haur eta nerabeen errealitate eta interesetara egokitutako eredu berri bat sortze aldera. Eredu berri honek honako hau ere jaso beharko luke: jarduera gehiago aire librean, arreta handiagoa ikasleen autonomiari eta garapen pertsonalari eta pentsamendu independenteari, metodo, material eta jardueren aniztasun zabalagoa, baita kultura jarduera gehiago ere.

6. Hezkuntza sistemaren ikuspegiak, oro har, soilik errendimendu akademikoa aztertzeari utzi beharko lioke; adierazpidea eta parte hartzea indartu beharko lituzke eta denbora libre pixka bat izatea ahalbidetu beharko luke. Pandemiaren krisiak gabezia sistematiko hori are gehiago nabarmendu zuen.

ENYA 2021

**IN-PERSON SCHOOLS AND THEIR VITAL ROLE
IN CHARACTER BUILDING**



7. Irakasle eta ikasleen arteko harremanak hobetzeko ahalegina egin behar da; irakasleek haurrak eta nerabeak entzun behar dituzte eta giro egokia sortu behar dute solasaldirako eta, horrenbestez, ikasteko. Harreman horiek lankidetzakoak izan behar dira helburu komunak lortzeko, bereziki haien eskubideen urraketa oro saihesteko, baita pandemia egoera ezohiko honetan ere.

8. Urrutiko irakaskuntza estandarizatu egin behar da eta bermatu egin behar da ikasteko ingurune eta estilo guztietarako egokia dela. Horregatik, gobernuak horren inguruko politika bateratua hartu beharko luke ikastetxeetarako.

9. Gobernuek nahitaezko prestakuntza txertatu beharko lukete irakasleek eta beste hezitzaile batzuek beharrezko ezagutzak eta trebetasunak izan ditzaten, arazo fisiko eta mentalei aurre egiten ari den haur bat identifikatu eta zuzen tratatu ahal izateko.

OSASUNA


1. Bermatu behar da aginteek, pandemian zehar, informazio argia maiz ematea, gazteen sentitzen dituzten zailtasunen ikuspegi errealista eskainiz, hezkuntzaren esparruan zein esparru pertsonalean, jatorri desberdineko gazteen panel bat gehituz etorkizunean gazteen irudi zehatz eta sentikorragoa eskaini ahal izateko.

2. Orain, inoiz baino gehiago, osasun mentalari buruzko informazioa eman behar zaie ikasleei ikastetxeetan, nola sentitzen diren antzeman eta interpretatzen ikas dezaten, erlaxatzen eta estresa kudeatzen ikas dezaten.

3. Gobernuek lehenetsi egin behar dute haur eta nerabeek haien bizitza ahalik eta modurik normalenean bizitzea.

4. Desgaitasunak dituzten haurrek eta nerabeek beharrezko errehabilitazio eta osasun zerbitzuak etenik gabe jasotzeko inguruabarrak sortu behar dira eta itxaroteko aldiak murriztu behar dira COVID-19aren aurreko diagnostiko eta prozedura guztietarako.

ENYA 2021
TAKING CARE OF YOUR MENTAL HEALTH



5. Tokiko aginte eta gobernuek haur eta nerabeen iritziak jaso behar dituzte infekzioak kontrolatzeko arauetan aldaketak sartzen direnean eta haien esku egon behar duten osasun zerbitzuei dagokienez.
6. Baliabide eta inbertsio finantzario gehiago behar dira bermatzeko haur eta nerabeek sarbidea izango dutela familia medikuen eta osasun mentaleko zerbitzu espezializatu eta profesionalen sarera.
7. Osasun mentaleko zerbitzu espezializatueta sarbide segurua izatea sustatu eta bultzatu behar da, aurrez aurreko ikuspegi pertsonalaren edo on line kontsulten bidez (gutxienez); hala, haur eta gazteei haien aukerarik gogokoena hautatzeko aukera emango zaie.
8. Haur eta nerabe guztiei, bereziki zaurkortasun egoeran daudenei, haien ulermen gaitasunera egokitutako informazio zehatza eman beharko zaie (haur ijitoak, migratzaileak -bakarrik daudenak barne-, desgaitasunen bat dutenak, gurasoen zaintzarik ez dutenak), COVID-19a eragiten duen birusaren hedapenari dagokionez.

POBREZIA:

ENYA 2021 INEQUALITY AND COVID-19



1. Baldintza sozio-ekonomiko gogorretan bizi diren familiak, seme-alabekin, identifikatu egin behar dira laguntza emateko, elikagaien paketeekin, desinfektatzeko material multzoekin, maskarak, sendagaiak eta higiene pertsonalerako beste material batzuekin.
2. Pandemiaren ondorioz lanik gabe geratu diren gurasoen familiei laguntza eta babesa eman behar zaie.
3. Beharrezko neurriak hartu behar dira haur eta nerabe guztiak ingurune egokietan bizi direla bermatzeko, bereziki etxerik gabeko haurrak eta harrera araubidean daudenak. Etxerik gabeko haurrak identifikatu egin behar dira eta laguntza eman behar zaie; izan ere, COVID-19aren birusaren infekzioak haur horiek jotzen ditu gogorren, eta beste inork baino eragin handiagoa pairatzen dute.

4. Kide ugariko familiei, harrera araubidean dauden hurrei, desgaitasunen bat daukaten hurrei eta haur ijitoei zuzendutako laguntza eta prestazio sozialak areagotu egin behar dira, koronabirusak eragindako gaixotasuna hedatzea saihesteko aplikatutako neurri murriztaileek eragindako ondorio negatiboak gainditze aldera.

5. Arduradun politikoek lanean ari diren ama eta aitak babestu behar dituzte; haien eskubideak urratzen direla saihesteko zaintza indartu behar dute eta eskubideak errespetatzen direla bermatu behar dute. Babes berezia eman behar zaie esplotazio eta diskriminazio arriskuari aurre egiten dioten ama eta aitei.

6. Eskola aurreko zerbitzuak eta bestelako haurtzaindegiak areagotu egin behar dira, eta lanean ari diren ama eta aitei ordutegi malguak eskaini behar zaizkie (baita laguntza etxean ere).

7. Hezkuntzara doako sarbidea izatea ziurtatu behar da.

8. Helduentzako lanbide heziketa lan merkatuan aukera bila ari diren ama eta aita guztiei eskaini behar zaie.

INDARKERIA ETA TRATU TXARRAK:

1. Ikastetxeetako psikologoek ikasleen ongizate eta inteligentzia emozionala babesteko eskola batean parte hartu beharko lukete. Eskola horietan haurrak gaituko lirateke, lagungarriak izango lirateke erru sentimenduei aurre egiteko eta haien osotasun fisiko eta emozionala urratzen ari dela identifikatzeko.

2. Etxeko indarkeria pairatzen duten familiei laguntza ematea, laguntza emozionala zein poliziala, eta tratu txarrak pairatuz gero familiek nora jo izateko leku bat. Familia zaurgarriek gizarte zerbitzuen eta osasun mentaleko jarraipen kontrolak izan behar dituzte, beharrezkoa denean, laguntza jasotzeko.

3. Poliziak haurrak eta nerabeak babestu behar ditu larrialdi publiko batean, arazo gisa hartu beharrean. Poliziak prestakuntza jaso behar du haur eta nerabeekin eraginkortasunez komunikatzeko moduari dagokionez.

ENYA 2021
WHEN HOME IS NOT A SAFE SPACE



4. Irakasleen eta ikastetxeetan lan egiten duten gainerako profesionalen prestakuntza handitu egin beharko litzateke, haurren eta nerabeen aurkako indarkeria egoerak saihesteko moduari, tratu txarren egoerak identifikatzeko moduari (etxeko tratu txarrak barne) eta erantzun egokia emateko moduari dagokionez.

5. COVID-19ak haur eta nerabe zaugarrietan izan duen inpaktua modu egokian ikertu behar dute gobernuek.

6. Indarkeria pairatzen duten hurrei zenbait babes zerbitzu eskaini behar zaizkie, baina baita indarkeria aplikatzen dutenentzako laguntza zerbitzuak ere. Zerbitzu horiek ikastetxean eskaini beharko lirateke, tokiko komunitateen eta osasun arretaren bidez.

7. Kontzientziatu egin behar da Interneten tratu txarrak eta indarkeria saihesteko on line plataformetan ikasteko prozesua garatzean. Sare sozialen enpresekin akordioak lortu behar dira, eskubideen aurka egiten duten argazkiak eta bideoak ezabatzeko.

8. Sare sozialen bidez (bereziki Instagram) publizitate kanpaina tinkoa egin beharko litzateke haur eta nerabeentzako estatu mailako laguntza telefonoen inguruko kontzientzia sortzeko (baita webguneak ere), tratu txarren biktima direnei orientazioa, akonpainamendua eta babes emozionala ematea helburutzat dutenak, anonimotasuna eta konfidentzialtasuna bermatuz.

JOLASA ETA AISIALDIA:

1. Kirol jardueretarako aisialdi gunek komunak babestu eta sustatu egin behar dira. Haur jarduerak eta kirolak zabalik egon behar dira posible den guztietan.

2. Gazte klubak eta arreta galtzeko bestelako jardueren finantzaketa lehenetsi behar da.

3. Aginteek haurren eta nerabeen aisialdi eta gizarte premiak kontuan hartu behar dituzte pandemiari aurre egiteko neurriak aplikatzean. Espazioak eta formatuak (formatu hibridoak) pandemiaren egoerara moldatzeak lehenetsia izan behar du jarduerak etetearen gainetik.

ENYA 2021

LETTING YOUNG PEOPLE LIVE THEIR LIFE



PARTE HARTZEA

1. Ikastetxeak bisitatu eta eskola bizitzaren esparru guztietan haur eta nerabeen iritziak entzuteko bereziki osatutako batzordea sortu beharko luke Hezkuntza Ministerioak.
2. Pertsona adingabeek parte hartu behar dute COVIDaren neurri murriztaile berriak erabakitzen direnean. Bereziki ikastetxeak berriz irekitzeari, azterketei eta osasun mentalean laguntzeko zerbitzuei dagokienez.
3. Haurren parte hartzeak ikasketa planen parte izan beharko luke, eta ikastetxeetako protokoloek haurren parte hartzera orientatuago egon beharko lukete.


INFORMAZIOA:

1. Haur eta nerabeei COVID-19aren inguruko informazio gehiago eman behar zaie: informazio hori haur eta nerabeen adinera egokitutako lengoian eman behar zaie. Informazioa zuzena izan behar da, eta konfiantzazko iturri batek eman behar du.

2. Gobernuak informazioa ematen duenean, ez ditu gazteak estigmatizatu behar, eta ez die arazo bat direla sentiarazi behar.

3. Erabakiak hartzeko arduradunak modu argi eta eraginkorrean komunikatu behar dira, eta haurrei eta nerabeei behar duten informazioa modu argian eman behar diete. Aldatuko ez den informazio zehatza baino ez da eman behar. Erabakietan bat-bateko aldaketak edo argiak ez diren aldaketak egitea kaltegarria izan daiteke haien ongizatean, batez ere azterketei dagokienez.

ENYA 2021
BETTER COMMUNICATION FROM AUTHORITIES



INGURUNE DIGITALA:

1. Espazio birtualak sortu behar dira, on line foroak barne, haurrak eta nerabeak talde gisa elkartzeko, etxeko lanekin elkar laguntzeko eta gaur egungo gaiak eta interes komuneko gaiak lantzeko, erakargarriak izan daitezkeen bilera eta ikastaroekin.
2. Ingurune digitalean haur eta nerabeen segurtasunaren tratamenduari buruzko kontzientziazioak prebentzio gisa jokatu behar du, eta adingabeen eta haien ama/aita/tutoreen arteko erabateko ulerkortasuna sortu behar du. Haurrek zein gurasoek sarean dauden arriskuen jakitun egon behar dute, esaterako ziber jazarpena, eta aurkitzen dituzten arriskuei aurre egiteko moduak jakin behar dituzte.
3. Ikastetxeetan sentsibilizazio kanpainak egin beharko lirateke, ikasleentzat zein irakasleentzat, ingurune digitalari dagokionez. Kanpaina horietan kazetariak, stremearrek, musikariek eta bestelakoek hartu beharko lukete parte, ikastea are gehiago estimulatzeko.

FAMILIA:

1. Behar duten familiek, eta kanpoan lan egiten duten gurasoak dituztenek, atsedean hartzeko eta haurtzaindegi zerbitzuak eduki behar dituzte, komunitate jardueren edo harrera zentro modura.
2. Egutegi bat eta nazioarteko lankidetzaz ezarri behar dira beste herrialde batzuetan bizi diren familiak elkar ikustea bermatzeko.

padlet

STNSCRIRE CONNEXION PARTAGER ?

suzannegill + 2 - 4 minutes

ENYA 2021 - Extra Topics Group 1
Recommendations

Participation	General	Play and Leisure	Information	Digital Environment
<p>1. Children should be consulted on suggested measures, this could be done via polls, digital voting and questionnaires. Children and young people's point of view should be actively collected. Once collected, adults should listen and take action in good time. Children should also be informed of what has been done and why.</p> <p>0</p> <p>Ajouter un commentaire</p>	<p>1. Children and young people shouldn't be seen as scapegoats and seen as causing the pandemic - this causes great frustration because children and young people can't make decisions about how things happen so the frustrations can boil over to anti-social behaviour.</p> <p>0</p> <p>Ajouter un commentaire</p>	<p>5. New community spaces should be opened dedicated to the practice of new hobbies.</p> <p>0</p> <p>Ajouter un commentaire</p>	<p>1. More information about COVID-19 needs to be given to children, such information should be provided in child-friendly language. Information should be straightforward and from a trusted source.</p> <p>0</p> <p>Ajouter un commentaire</p>	<p>1. The quality of digital platforms and tools in schools needs to be improved so as to create 'connected learning environments'.</p> <p>0</p> <p>Ajouter un commentaire</p>
<p>2. Adults tend to only listen to children on what they agree with and children feel blocked and censored. Children should be consulted on all decisions that affect them. Parents</p>	<p>2. Children of different ages have different needs and these should be addressed. Young children began to be able to go out, but teenagers were not, when it is a stage of life with a lot of energy and desire to do things.</p>	<p>6. Financial aid targeted at cultural activities and tourism should be granted to families so as to contribute to family leisure and economic recovery.</p> <p>0</p> <p>Ajouter un commentaire</p>	<p>2. Decision-makers need to communicate clearly and effectively and provide children with the information they need in a clear form. Only accurate information that won't change should be given out. Sudden unclear changes in decisions may have an effect on children's wellbeing, particularly with regards to</p>	<p>2. Virtual spaces should be created for children and young people to unite as a group and help each other with homework and to deal with issues of common and current interest, with courses and meetings that attract children more.</p> <p>0</p> <p>Ajouter un commentaire</p>
		<p>7. Governments must give priority to measures targeted at young people's social lives from now on. There needs to</p>		

Volodymyr Anpilogov, ...

Elisa-Malta

Isidora Joyčević Pod...

Nikola (Slovača)

POBART

ONDORIOA

TAholkulariek adierazi zuten moduan, "haurrak eta nerabeak ez dira bekatari modura hartu behar, eta ez dira pandemiaren eragile gisa ikusi behar, horrek frustrazio handia eragiten baitu. Horrez gain, ezin dute gauzak gertatzeko moduaren gaineko erabakirik hartu; hortaz, frustrazioen ondorioz jokabide antisoziala etor daiteke." Haur eta nerabeen eskubideek pandemian ere bermatuta egon behar dute, eta haurrek eta nerabeek zerbitzuetara sarbidea izaten jarraitu behar dute, nortasun agiriak eskatzeko aukera barne.

ENYA foroan parte hartu zuten gazteetako batzuek gomendio hauek ENOCen Urteko Biltzarrean aurkeztu zituzten, 2021ko irailaren 27an eta 28an. Gomendio batzuk, bidenabar, ENOCen adierazpenean ere sartu dira, kideek irailaren 29an onartu zutena.



ENYA proiektua Europar batasuneko Eskubide, berdintasun eta Herritartasun programak finantziatuta egon zen (REC 2014-2020). Argitalpen honen edukia ENOC-en iritziak adierazten ditu. Europar Komisioak ez du erantzuletasunik onartzen bere edukiaz egindako erabileraz.

